

BELAUNTZAKO UDALA

2 0 1 6 KO


AURREKONTUA

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

IZAPIDETZA ESPEDIENTEA



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2016/06 ZK. ALKATETZA DEKRETUA


Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41.16 artikulua (2568/1986 Errege-Dekretua, azaroaren 28koa) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14.1 artikulua xedatzen dute alkateak duela udal aurrekontua gertutzeko eskumena.

Hori kontuan hartuta hurrengo hau erabaki dut:

- 1.- 2016ko Belauntzako udaleko udal aurrekontua prestatzea.
- 2.- Ebazpen honen berri hurrengo ohizko udalbatzarrean ematea.

Belauntzan, 2016ko otsailaren 16an.

Alkatea,



Sin.: Mariano Lazkano Arana

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

**AURR KONTUAREN OINARRIAK ETA AURREIKUSPEN
EGOERA**



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MEMORIA

1.- Ekonomi egoera

Gure ustez, Gipuzkoako udalen ogasunen kontestu orokorrean, udal honen ogasunaren ekonomi egoera onargarria da, neurri handi batetan diru-sarrera arruntak gastu arruntan adina baitira. Era horretan, inbertsio gastuak finantzatzeko kreditu eragiketaren baliabideak erabili beharko dira.

2.- Finantza egoera

Oinarrian hau esan daiteke: eskueran dauden baliabideen zergabilketaren zalutasun eta aldizkakotasunak gastuak puntualki ordaintzeko aukera ematen du; hori dela eta, urtean zehar Diruzaintzan gerta daitezkeen arazo eta gorabeherak noizbehinkakoak izango direla pentsa daiteke.

3.- Egiterakoan kontuan izan diren irizpideak

2016ko Aurrekontuaren egitasmoa esparru bakoitzeko arduradun diren alderdiek egindako proposamenetik jasotako informazioa oinarritzat hartuz egin da.

Lan hori egiterakoan, erraztasunak eman asmoz, esparru bakoitzeko alderdi arduradunaren eskueran ondoko hauek utzi dira: zerbitzuak eratzeko edo aldatzeko hartutako erabakiak eta beharrezko gainerako aurrekariak; aurreko urteko Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioa; segidako traktuaren betebeharrak, legezko ezarpenaren edo onartutako konpromisuen bidezkoak; eta, nolana ere, aurreko ekitaldian edo tarifa eta kuotak gehitzearen ondorioz izandako etekinen arabera aurreikusitako diru-sarrerak.

4.- Aurrekontuaren helburuak

2016ko ekitaldiko Aurrekontuaren bitartez, Udalaren ekonomi ihardueraren programa gisa, baliabideei ahalik eta etekin gehiena atera nahi zaie, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta zainduz.

Helburu orokor horren barruan baliabide arruntak inbertsiorako erabili nahi dira azpiegitura hobetzeko eta osatzeko eta administratuen ongizatea hobetzeko. Asmo horrek




BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ez du ekarriko zerbitzu emateen maila gutxitu beharra, ez eta administratuek diru-ekarpen gehiago egin behar izatea ere.

5.- Aurrekontuaren edukia

GASTUAK			
Kap.	Izendapena	2015eko aurrekontua	2016ko aurrekontua
1	Pertsonal gastuak.	122.397,91	132.205,18
2	Gastu ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	120.006,63	113.548,64
3	Finantza gastuak.	188,95	50,00
4	Transferentzia arruntak.	18.550,05	18.905,29
6	Inbertsio errealak.	152.027,95	72.130,56
9	Pasibo finantzarioak.	15.249,84	15.300,00
Guztira.....		428.421,33	352.139,67

SARRERAK			
Kap.	Izendapena	2015eko aurrekontua	2016ko aurrekontua
1	Zuzeneko zergak.	78.454,10	83.439,63
2	Zeharkako zergak.	100,00	1.650,04
3	Tasak eta bestelako sarrerak.	17.709,00	19.467,60
4	Transferentzia arruntak.	232.260,29	239.721,00
5	Ondare-sarrerak.	6.968,40	7.861,40
7	Kapital-transferentziak.	92.929,54	0,00
Guztira.....		428.421,33	352.139,67



Belauntzan, 2016ko otsailaren 16an
ALKATEA,

Stua. Mariano Lazkano Arana



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 2003/21 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udala honetako Idazkari-kontuhartzaileak ondorengo txostena egin du;

KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA

2016ko Aurrekontu Orokorren azterketak honako hau azaltzen du:

Hauek sartu dira: ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako Sarrerren Egoera, ordainketazko nahiz konpromisuzko beharrei aurre egiteko kredituen Gastuen Egoera, azalpen memoria eta aipatutako Foru Arauaren 6. artikuluan adierazitako eranskinak.


Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorrek ez du hasierako defizitik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaietan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.


Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren (aktan aurrekontu bakoitzaren kapitulukako laburpena azaldu beharko da), GAO n argitaratuko da eta udaletxeko iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betirako onartu.



Belauntzan, 2016ko otsailaren 16an
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,

Stua. Jose Martin Deusto Iturri



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

EKONOMI ETA FINANTZA TXOSTENA


Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 2003/21 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udal honetako Idazkari-Kontuhartzaileak, aipatu 2016ko ekitaldirako aztertzen ari den aurrekontuari dagokionez, txosten hau egin du:

TXOSTENA

Hemen aztertzen ari garen aurrekontuko diru-sarrereren aurreikuspenak zehazteko, oinarri hauek erabili dira:

- Aurreko ekitaldian baliabideengatik lortutako etekina eta ekitaldi honetan igarotako sei hiletan lortutakoa.
- Espero diren zerga unitate berriak, eta katastroko balioen gehikuntza, tributu propioei dagokienez.
- Borondatezko zergetan espero diren zergagai kopurua.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren partaidetzan eta Itundu gabeko Zergen partaidetzan espero diren gehikuntzak.
- Eskualdaketa eta diru-laguntza arrunten nahiz kapitalezkoen zenbateko ezaguna edo ustezkoa.
- Ondarezko ondasuna inorenganatzeagatik aurreikusitako emaitza, balorazio teknikoen arabera.

Sarrereren Egoeran azaltzen den kreditu eragiketaren zenbatekoa Inbertsio gastuen guztizkoaren eta ondoren zehazten diren baliabideen baturaren arteko diferentziazatik ateratzen da: eragiketa arruntengatiko soberakina (diru-sarrereren 1, 2, 3, 4 eta 5 kapituluen



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

eta gastuen 1, 2, 3, 4 eta 9 kapituluen arteko diferentzia), ondarezko ondasunak inorenganatzegatik ateratakoa eta gastuari lotutako finantzaketa; era berean, inoren baliabidea zehazteko Zorpetzeari Eraskineko agirian adierazten den zorpetze aukeren tartea izan da kontuan.

Aztertzen ari diren aurrekontuetan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarriko dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor galdagarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependenzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisuetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.

Aurrekontuan jasotako diru-sarrerak aurrekontuan bertan aurreikusitako gastuen kreditu guztiak ordaintzeko ematen du eta, hortaz, esan dezakegu Aurrekontuak ez duela hasierako defizita.

Datozen ekitaldietako konpromisuzko kredituak ez dira handiagoak izango likidatu den azken ekitaldiko eragiketa arruntengatik onartutako eskubideen %25 baino. Edozein modutan, ekitaldi horietarako aurreikusten diren finantza baliabideak, propioak nahiz besterenak, nahikoak izango dira finantzaketarako.




Belauntzan, 2016ko otsailaren 16an
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,

Stua. Jose Martin Deusto Iturri

BELAUNTZAKO UDALA

2 0 1 5 EKO

LIKIDAZIOA



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)


2016/10 ALKATETZA DEKRETUA

Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen. Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n:		177.921,61
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		55.976,89
Aurrekontuko zordunak :	45.938,91	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	10.037,98	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		86.403,16
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	68.582,50	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	17.820,66	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		147.495,34
5.- Saldo kobragaitzak:		5.199,90
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		142.295,44
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		142.295,44
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		10.516,79
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-158,75
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		10.578,77




BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	20.936,81
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.477,48
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	11.334,83
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	12.812,31

Bilgarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Belauntzan, 2016ko martxoaren 10ean.



Alkatea,


Sin. Mariano Lazkano Arana

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA
IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA
BETETZEARI BURUZKOA.



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.


AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2016ko Belauntzako udalaren aurrekontua.

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

Belauntzako udala.

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurrekontuen egonkortasuna

2016ko Belauntzako udalaren aurrekontuaren espedienteak 15.300,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Hori dela eta, 2016ko Belauntzako udalaren aurrekontuaren espedienteak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten % 11,54 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak.


2016rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2016ko Belauntzako udalaren aurrekontuaren espedienteak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua.

Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % -25,97 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	455.062,23
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2015eko interesak	149,15
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2014an	0,00
a=a1+a2-a3-a4	2015eko gastu konputagarria	454.913,08
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	336.839,67
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko interesak	50,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	0,00
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2016ko gastu konputagarria	336.789,67
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% -25,97

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,3 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2016ko Belauntzako udalaren aurrekontuaren espedienteak bete egiten du 2016ako gastuaren araua.

1.3.- ONDORIOAK


2016ko Belauntzako udalaren aurrekontuaren espedienteak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2016rako ezarritako



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

helburuak eta gastu araua. Beraz, Belauntzako udala ez dago behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Belauntzan, 2016ko otsailaren 16an
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,



Sin. Jose Martin Deusto Iturri

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukina.

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 352.139,67 eurokoak ditu.

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak.

2016ko ekitaldi ekonomikoan Belauntzako Udalak abalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren % 10ko mugapean.

3. artikulua.- Zorpetze muga.

Udalak bere gain hartutako epe luzeko zorpetze eragiketengatik, edozein izanik ere horiek dokumentatzeko era, 2016ko abenduaren 31n gelditzen den zor bizia ezingo da 220.000 eurotik gorakoa izan.

Diruzaintzako eragiketa horien hitzarmena eta beren amortizazioa, aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra.

1.- Kredituen lotespen juridikoen mailak.

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldatetetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

- Eginkizun egitaraua eta kontzeptua, gastu arrunten ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboen aldateten ziozko gastuetan.
- Eginkizun egitaraua eta kapitulua, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza-gastuetan eta finantza pasiboen aldateten ziozko gastuetan.
- Kapitulua, langileen gastuetan.



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2.- Kreditu zabalkorrak.

Uste baino diru-eskubide gehiago onartzearen arabera zabalkorrak diren kredituak kreditu gaikuntzaren erregimenean finantzatuko dira.

Kreditu globalaren erabilpenaren arabera nahiz soberakotzat jotako kredituetatik eginiko transferentzien arabera zabalkorrak diren kredituak, ordea, kreditu transferentzien erregimenean finantzatuko dira.

5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak.

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 2003/21 Foru Arauak eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein programa funtzionaletan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Lehendakari izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada.

6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak.

1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak.

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastua egiteko baimena.
- b) Gastuaren xedapena edo konpromisoa.
- c) Betebeharraren aintzatespena.
- d) Gastuaren agindua.
- e) Ordainketa.

2.- Gastuen baimena eta erabilera.



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Udalbatzarraren eskumena izango da 6.010 eurotik gorako gastuen, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera.
- b) Alkatearen eskumena izango da 6.010 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedienteari alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurrizko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du.

3.- Obligazioaren onarpena.

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisuetatik sortutako obligazioak.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat kontuhartzailearen txostena daraman faktura zerrenda har daiteke.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak diligentsia bana egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren oniritzia daramana, honakoa jasoz:

- Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta berarekiko adostasuna.

- Gastu onartu duen organoa eta eguna.

- Zein aurrekontu partidatan eta zein katebururen erreferentziarekin kontabilizatu behar den.

4.- Ordainketaren agindua.

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea.

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Gastuen baimena eta erabilera, udal entitatean legez hartutako konpromisuetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzenez erosketak.

- Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean: erosketak arruntetan, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskonzentratutakoak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeke.

7. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak.

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen gisa, eta hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez egitea ezinezkoa denean, "zuritu beharreko" izaerako ordainketa aginduak egin ahal izango dira, aurrekontu partiden kargura.

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.


Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke fondorik ez izatea.

8. artikulua.- Aldez aurreko gastu baimendua.

Gastu arrunt errepikakor eta txikiak gauzatzeko prozesua aldez aurreko gastu baimenduen fitxak betez hasiko da.

Aldez aurreko gastu baimendu horretan, gastu proposamen bat jasoko da:

- Departamentuko arduradunak sinatuta.
- Kontuhartzaitzak aldeko txostena eginda.



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Alkatetzak onartuta.

Proposamen horren bitartez departamentuko arduradunari baimena ematen zaio gastuak konprometitzeko alde zuzeneko gastu baimenduan jasotako kopuru osoraino, Kontuhartzaitza edo Alkatetzara jo gabe banan-banan kontuan hartutako gastu bakoitzerako.

Gastu horiek eragindako departamentuak arduratuko dira gastu baimendu kontsumituaren eta gainerako maila etengabe eguneratzeaz, eskarien balorazioaren bitartez; eta behar adinako aurrerapenez Kontuhartzaileari jakinaraziko diote alde zuzeneko gastu baimendu berri baten ordain agindua beharra.

9. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak.

Aldizkako izaera duten edota errepikakorak diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute. Aurrerakinak ematea nahiz itzultzea aurrekontuz kanpoko eragiketaz izango dira.


Kutxa finkoko aurrerakinak udal entitateko lehendakariaren dekretuz onartuko dira. Diru-hornidura automatikoki berritu daiteke aurrerakoaren likidazioa aurkeztu ondoren.

Kutxako arduradun, ordaintzaile nahiz habilitatuek jasotako dirutza Korporazioaren Kutxan kokatu beharko dituzte eta behar ahala erabili ahal izango dituzte aurrerakinak jasotako xedeetarako. Guztiz galerazita gelditzen da fondo horiek nork bere helburuetarako erabiltzea. Aurrerakinak jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korronte bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean Udalaren izenean, jasotako fondo bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko.

Aurrerakinak jasotzaileek jasotako diruaren kontrola eraman beharko dute kontu korronteen liburu baten bitartez, bertan zordunduz eta abonatuz bai sarrerak bai fakturaz zuritutako zenbatekoa.

Era berean, udal diruzainak ere liburu laguntzaile bat eraman beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeko, bertan zehaztuz jasotzaile bakoitzari emandako dirua eta zuritutako zenbatekoa.

Kutxa finkoko aurrerakinak jasotzaileek udal kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakinak eman eta handik hiru hilabetera



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 15 baino lehen.

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontu partidari aplikatu beharko zaizkio ordainaginduak.

10. artikulua.- Alkate eta zinegotzientzako konpentsazio ekonomikoak. Dieta eta joan-etorrien kalteordainak.

1. Alkatearen ordainsaria urteko 10.500 eurokoa izatea, 14 ordainketetan banatua, bakoitza 750 euro gordina.
2. Udalbatzarretan parte hartzen duten zinegotzietan 20 euroko dieta ordaintzea eta mankomunitate, partzuergo eta elkarteetan parte hartzen duten zinegotzietan 25 euroko dieta ordaintzea.
3. Alkateak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalteordainen eskubidea izango dute:

- Joan-etorriak gastuak:

- Joan-etorriak: **0,29 euro** kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

Funtzionarioek eta langile kontratatuek egindako lanen kalteordainei buruz Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako indemnitazioak hartzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifaren arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalteordainaren zenbatekoa.

11. artikulua.- Diru-laguntzak.

Edozein iharduera antolatzeke Udalak nahiz organismo autonomoek emandako diru-laguntzek bat etorri beharko dute Gobernu Batzordeak, batzorde informatiboen proposamenez, onartutako oinarriekin.

Udalaren nahiz organismo autonomoen aurrekontuaren kargura inolako diru-laguntzarik



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

jasotzen duenak, aldez aurretik, Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, kontuhartzaileak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.

12. artikulua.- Ikastaroak.

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, udal entitateko lehendakariaren oniritziarekin, besteak beste honako datuak jasoaz:

- Ikastarora doanaren datuak. izen-abizenak, lanpostua, e.a.
- Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
- Ordutegia.

-Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.

b) Udal entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontuhartzaileak aurrekontu krediturik badagoenentz eginiko txostena ikusita.


c) Ebazpena ikusita, diruzainak "zuritu beharreko ordainketen" izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

13. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea

Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuari, kasuan kasuko, indarreko ekitaldikoak izanik, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkie, beti ere aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe hurrengo kasuetarik batetakoak direnean:

- Baimenpeko transferentziaren xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, beti ere, kasu bietan, ekitaldiko azken hiruhilekoan emanak direnean.
- Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, beti ere, bidezkotutako kariak direla bide, beraietarako betebeharra ezin hartua denez.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Capital eragiketen ziozko kredituak.

Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.



BELAUNTZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Txertaketa arreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

SAILKAPEN KONOMIKOA:

KAPITULUAK

ARTIKULUAK

KOTZEPTUAK

AZPIKONTZEPTUAK

SARREREN EGOERA

2 - SARRERA ARRUNTA

Kapitulua	Hasierako aurr	Behin bet aurr	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Itzulketak	Bildutakoa garbia	Kobr. dagoena	Aurrek. desb.
1 Zuzeneko zergak	83.439,63	83.439,63	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	83.439,63
2 Zeharkako zergak	1.650,04	1.650,04	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.650,04
3 Tasak eta bestelako sarrerak	19.467,60	19.467,60	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	19.467,60
4 Transferentzia aruntak	239.721,00	239.721,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	239.721,00
5 Ondarezko sarrerak	7.861,40	7.861,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	7.861,40
7 Kapital transferentziak.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Urte 2015	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67
2 - SARRERA ARRUNTA	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67

2 - SARRERA ARRUNTA

Artikulua	Hasierako aurr	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Bildutakoa gordina	Itzulketak	Bildutakoa garbia
11 Kapitalaren gainekoak	80.227,23	0,00	0,00	80.227,23	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
13 Iharduera ekonomikoaren gainekoak	3.212,40	0,00	0,00	3.212,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
28 Bestelako zeharkako zergak	1.650,04	0,00	0,00	1.650,04	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31 Tasak udal eskum. zerbi. emat. edo jarduera adm. egiteagatik	10.937,60	0,00	0,00	10.937,60	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
32 Tasak. herri jabariaren erabilera.	6.000,00	0,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
39 Bestelako sarrerak	2.530,00	0,00	0,00	2.530,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
40 Estatukoak	314,00	0,00	0,00	314,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
41 Euskal herriko autonomi elkarteak	2.750,00	0,00	0,00	2.750,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
42 Gipuzkoako lurralde historikokoak	236.657,00	0,00	0,00	236.657,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
54 Ondasun higiezinaren errentak	7.853,40	0,00	0,00	7.853,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
56 Gordailuen interesak	8,00	0,00	0,00	8,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
72 Gipuzkoako lurralde historikokoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
87 Diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Urte 2016	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 - SARRERA ARRUNTA	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2 - SARRERA ARRUNTA

Eko. kontzeptua	Hasierako aurr	Igoerak	Atxekipenak	Behin betaurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Bildutakoa gordina	Itzulketak	Bildutakoa garbia
112 Ondasun higienizen gaineko zergak	49.826,46	0,00	0,00	49.826,46	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
113 Trakzio mekanik. ibilga. gaineko zergak	25.300,00	0,00	0,00	25.300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
114 Hirr-lurren balio gahikuntzaren gaineko zerga	5.100,77	0,00	0,00	5.100,77	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
130 Iharduera ekonomikoan gainekoak	3.212,40	0,00	0,00	3.212,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
282 Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	1.650,04	0,00	0,00	1.650,04	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
310 Zerbitzu orokorrak	10.459,00	0,00	0,00	10.459,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
311 Iharduera ekonomikoan gainekoak.	100,00	0,00	0,00	100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
312 Higiezin jabetzaren gainekoak	378,60	0,00	0,00	378,60	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
320 Zerbitzu orokorrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
321 Jarduera ekonomikoari laguntzen.	6.000,00	0,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
392 Epe. exek. erreargua eta erreker. gabe epez kanpo aurkezteagatik ezarria	30,00	0,00	0,00	30,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
396 Konpentsazioak	1.500,00	0,00	0,00	1.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
399 Beste hainbat sarrera	1.000,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
400 Estatuko administrazio orokorrenak	314,00	0,00	0,00	314,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
410 Administrazio orokorrenak	2.750,00	0,00	0,00	2.750,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
420 Foru diputazioaren eta bere foru enteena	236.657,00	0,00	0,00	236.657,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
540 Hirr-finken errentamenduaren emaitza	5.324,52	0,00	0,00	5.324,52	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
543 Negozio-lokalen adjudikazio eta enkantea	2.528,88	0,00	0,00	2.528,88	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
560 Gordailuen intereseak	8,00	0,00	0,00	8,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2 - SARRERA ARRUNTA

Eko. kontzeptua	Hasierako aurr	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Bildutakoa gordina	Itzulketak	Bildutakoa garbia
720 Foru diputazioarenak eta bere foru enteenak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
870 Diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Untziak 2016	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 - SARRERA ARRUNTA	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2 - SARRERA ARRUNTA

Eko. azpikontzeptua	Hasierako aurr	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Bildutakoa gordina	Itzulketak	Bildutakoa garbia
11201 Landa-ondasunak	940,44	0,00	0,00	940,44	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
11202 Hiri-ondasunak	48.886,02	0,00	0,00	48.886,02	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
11301 Trakzio mekanik. ibilg. gaineko zerga	25.300,00	0,00	0,00	25.300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
11401 Hiri-lurren balio gahikuntzaren gaineko zerga	5.100,77	0,00	0,00	5.100,77	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
13001 Enpresa-iharduerak	3.212,40	0,00	0,00	3.212,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
28201 Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	1.650,04	0,00	0,00	1.650,04	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31001 Zaborren edo hiri hondakin solidoen etxez etxeko bilketa	9.309,00	0,00	0,00	9.309,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31003 Tasak. hilerria.	150,00	0,00	0,00	150,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31016 Kultur serbitzuak	1.000,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31101 Irekizeko baimena.	100,00	0,00	0,00	100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
31201 Tasak. hirigintzako baimenak.	378,60	0,00	0,00	378,60	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
32099 Zerbitzu orokorrenatik bestelako tasak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
32101 Energia eramateko lineak.	6.000,00	0,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
39201 Premiamendu-errekargua	30,00	0,00	0,00	30,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
39601 Telefonika	1.500,00	0,00	0,00	1.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
39901 Beste hainbat sarrea	1.000,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
40001 Itundu gabeko zergeiako partaidetza	300,00	0,00	0,00	300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
40002 Ine	14,00	0,00	0,00	14,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
41001 Bake epaitegia	750,00	0,00	0,00	750,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2 - SARRERA ARRUNTA

Eko. azpikonizeptua	Hasierako aurr	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Onar esk garbiak	Bildutakoa gordina	Itzulketak	Bildutakoa garbia
41005 Osakidetza.	2.000,00	0,00	0,00	2.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
42001 Fondo forala	233.657,00	0,00	0,00	233.657,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
42003 Haur eta gazteentzako inharduerak	1.000,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
42004 Fa. kultur jarduerak.	2.000,00	0,00	0,00	2.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
54001 Hiri-finken errentamenduaren emaitza	5.324,52	0,00	0,00	5.324,52	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
54301 Herriko taberna	2.528,88	0,00	0,00	2.528,88	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
56001 Kontuaren intereseak	8,00	0,00	0,00	8,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
72005 Lurrak. garbiketa.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
72006 E	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
87001 Diruzaintza gerakina, gastu orokorretarako	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
URRESARRIA	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 - SARRERA ARRUNTA	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

XEHETASUNA:

PARTIDAKA

SARREREN EGOERA

2 - SARRERA ARRUNTA

Partida	Hasierako aurr	Behin bet aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Itzulketak	Bildutakoa garbia	Kobr. dagoena	Aurrek. desb.
2 0000.112.000.00.01 2016 (1) LANDA-ONDASUNAK	940,44	940,44	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	940,44
2 0000.112.000.00.02 2016 (2) HIRI-ONDASUNAK	48.886,02	48.886,02	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	48.886,02
2 0000.113.000.00.01 2016 (3) TRAKZIO MEKANIK/IBILGAILUEN	25.300,00	25.300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	25.300,00
2 0000.114.000.00.01 2016 (5) HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN	5.100,77	5.100,77	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	5.100,77
2 0000.130.000.00.01 2016 (4) ENPRESA-IHARDUERAK	3.212,40	3.212,40	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	3.212,40
2 0000.282.000.00.01 2016 (7) ERAIKUNTZA, INSTALAZ. ETA OBREN	1.650,04	1.650,04	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.650,04
2 0000.310.000.00.01 2016 (8) ZABORREN BILKETA	9.309,00	9.309,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	9.309,00
2 0000.310.000.00.03 2016 (446) HILERRIA, TASA.	150,00	150,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	150,00
2 0000.310.000.00.16 2016 (12) KULTUR ZERBITZUAK	1.000,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00
2 0000.311.000.00.01 2016 (163) ESTABLEZIMEN. IRIKITZE LIZENTZIAK	100,00	100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	100,00
2 0000.312.000.00.01 2016 (447) HIRIGINTZAKO BAIMENAK	378,60	378,60	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	378,60
2 0000.320.000.00.99 2016 (538) Bestelako lasak.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 0000.321.000.00.01 2016 (260) ARGIA ETA GASA, TASA.	6.000,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	6.000,00
2 0000.392.000.00.01 2016 (223) PREMIAMENDU-ERREKARGUA	30,00	30,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	30,00
2 0000.396.000.00.01 2016 (15) TELEFONIKA	1.500,00	1.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.500,00
2 0000.399.000.00.01 2016 (16) BESTE HAINBAT SARRERA	1.000,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00
2 0000.400.000.00.01 2016 (17) ITUNDU GABEKO ZERGETAKO	300,00	300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300,00
2 0000.400.000.00.02 2016 (134) I.N.E. TRANSF. ETXE ETA BIZTANLE	14,00	14,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	14,00
2 0000.410.000.00.01 2016 (18) BAKE EPAITEGIA	750,00	750,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	750,00

2 - SARRERA ARRUNTA

Partida	Hasierako aurr	Behin beti aurr	Onart. eskubid. gordinak	Eskub. deusezt	Itzulketak	Bildutakoa garbia	Kobr. dagoena	Aurrek. desb.
2 0000.410.000.00.05 2016 (360) Osakidetza. Medikuarien kontsulta.	2.000,00	2.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.000,00
2 0000.420.000.00.01 2016 (19) FONDO FORALA	233.657,00	233.657,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	233.657,00
2 0000.420.000.00.03 2016 (166) HAUR ETA GAZTEENTZAKO	1.000,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00
2 0000.420.000.00.04 2016 (539) FA. KULTUR JARDUERAK.	2.000,00	2.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.000,00
2 0000.540.000.00.01 2016 (510) Etxebizitzaren errentak.	5.324,52	5.324,52	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	5.324,52
2 0000.543.000.00.01 2016 (324) Tabernaren errenta.	2.528,88	2.528,88	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.528,88
2 0000.560.000.00.01 2016 (23) KONTUAREN INTERESEAK	8,00	8,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	8,00
2 0000.720.000.00.05 2016 (479) F.A. Lurrak. Garbiketak.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 0000.720.000.00.06 2016 (482) F.A. Iturregiko bidea.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2 0000.870.000.00.01 2016 (295) DIRUZAINZA GERAKINA	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2016-2016	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67
2 - SARRERA ARRUNTA	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67

BELAUNTZAKO UDALA

2016KO

AURREKONTUA

SAILKAPEN KONOMIKOA:

KAPITULUAK

ARTIKULUAK

KOTZEPTUAK

AZPIKONTZEPTUAK

GASTUEN EGOERA

Aurrekontuetako balantzea

Ekitaldia: 2016	Hasierako hilabetea: 0	Amaterako hilabetea: 0
Guztizko mota: Kontabilizatua		

1 - GASTU ARRUNTA

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Atxekipenak	Baimendua	Erabilia	Onart. Oblig.	Ordainketak garbiak	Erabilgarria
1 Langileen ordainsariak	132.205,18	132.205,18	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	132.205,18
2 Ondasun arrunten eta zerbitzu erosketa	113.548,64	113.548,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	113.548,64
3 Interesak	50,00	50,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	50,00
4 Transferentzia arruntak	18.905,29	18.905,29	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	18.905,29
6 Inbertsio errealak	72.130,56	72.130,56	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	72.130,56
9 Finantza pasiboen aldaketa	15.300,00	15.300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	15.300,00
Linea 2016	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67
1 - GASTU ARRUNTA	352.139,67	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67

Aurrekontuetako balantzea

Ekitaldia: 2016	Hasierako hilabetea: 0	Amaierako hilabetea: 0
Guztizko mota: Kontabilizatua		

1 - GASTU ARRUNTA

Artikulua	Hasterako aurr.	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr.	Onart. Oblig.	Ordainketak gordinak	Diru-fizulerak	Ordainketak garbiak	Oblig - ordain	Ktu gerakinak (Aurr-O)
12 Funtzionariak.	47.355,56	0,00	0,00	47.355,56	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	47.355,56
13 Laboral finkoa	50.559,52	0,00	0,00	50.559,52	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	50.559,52
16 Enplegu-emaitzearen kargurako gizarte kuota, prest. eta gastuak	34.290,10	0,00	0,00	34.290,10	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	34.290,10
21 Konponketak, mantentimendua eta artapena	12.150,00	0,00	0,00	12.150,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	12.150,00
22 Materiala, hornidurak eta bestelakoak	89.418,64	0,00	0,00	89.418,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	89.418,64
23 Zerbitzuagatiko kalteordainak	11.980,00	0,00	0,00	11.980,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	11.980,00
33 Epe luzerako maileguenak	50,00	0,00	0,00	50,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	50,00
42 Gipuzkoako lurralde historikoari	15.015,29	0,00	0,00	15.015,29	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	15.015,29
48 Familiei eta irabazizko xederik gabeko erakundeek	3.890,00	0,00	0,00	3.890,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	3.890,00
60 Inber. erabilera orokor. dest. azpiegitura eta ondasunetan	46.531,87	0,00	0,00	46.531,87	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	46.531,87
62 Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsioa	23.648,69	0,00	0,00	23.648,69	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	23.648,69
64 Gastuak izaera immaterialeko inbertsio.	1.000,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00
68 Gastuak ondare-ondasunen inbertsioetan.	950,00	0,00	0,00	950,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	950,00
93 Epe luzerako maileguen amortizazioa	15.300,00	0,00	0,00	15.300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	15.300,00

Urtearen 2016	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67
---------------	------------	------	------	------------	------	------	------	------	------	------------

1 - GASTU ARRUNTA

Artikulua	Hasierako aurr.	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr.	Onart. Oblig.	Ordainketak gordinak	Diru-itzulerak	Ordainketak garbiak	Oblig - ordain	Kiu gerakinak (Aurr-O)
1 - GASTU ARRUNTA	352.139,67	0,00	0,00	352.139,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	352.139,67

Aurrekontuetako balantzea

Ekitaldia: 2016	Hasierako hila: 0	Amaterako hila: 0
Guztizko mota: Kontabilizatua		

1 - GASTU ARRUNTA

Eko. kontzeptua	Hasierako aurr.	Igoerak	Atxekipenak	Behin bet aurr.	Onart. Oblig.	Ordainketak gordinak	Diru-itzulerak	Ordainketak garbiak	Oblig - ordain	Ktu gerakinak (Aurr-O)
120 Oinarrizko ordainketak	47.355,56	0,00	0,00	47.355,56	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	47.355,56
130 Laboral finkoa	40.008,64	0,00	0,00	40.008,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	40.008,64
131 Aldarteko laborala.	10.550,88	0,00	0,00	10.550,88	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	10.550,88
160 Gizarte kuotak	33.451,10	0,00	0,00	33.451,10	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	33.451,10
162 Funtzionarioen gastu sozialak.	595,00	0,00	0,00	595,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	595,00
163 Pertsonal laboralaren gizarte gastuak.	244,00	0,00	0,00	244,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	244,00
210 Azpiegitura eta ondasun naturalak	6.000,00	0,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	6.000,00
212 Makinaria, instalazioak eta tresneria	6.150,00	0,00	0,00	6.150,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	6.150,00
220 Bulego-materiala	550,00	0,00	0,00	550,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	550,00
221 Hornidurak	11.135,00	0,00	0,00	11.135,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	11.135,00
222 Komunikazioak	7.740,00	0,00	0,00	7.740,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	7.740,00
224 Aseguru-primak	3.620,00	0,00	0,00	3.620,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	3.620,00
226 Hainbat gastu	22.670,00	0,00	0,00	22.670,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	22.670,00
227 Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	43.703,64	0,00	0,00	43.703,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	43.703,64
230 Pertsonalaren dieta, lokomozioa eta lekualdaketa	40,00	0,00	0,00	40,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	40,00

1 - GASTU ARRUNTA

